

E U T A N A S I A

Heriotza duina. Heriotza bezalako zerbait sentikorrak eztabaida sortzen du, eutanasiaren aurkako eta aldeko argudioekin.

ZER DA EUTANASIA?

«Heriotza ona» Sufrimendu fisikorik gabeko heriotza barea, beste batzuek lagunduta.

Gaixo terminala hiltzea helburu duen praktika. Bere sufrimendua eten eta bakean atseden har dezake. ***SUIZIDIOA edo lagundutako heriotza:*** *gaixo bati bere bizitza amaitzeko asmoz emandako laguntza da. Kasu horretan, gaixoak berak gauzatzen du ekintza.*

EUTANASIA MOTAK

- *Eutanasia zuzen aktiboa edo positiboa, Espainian legezkoa den bakarra, medikuaren inplikazio aktiboarekin pazientearen heriotzan. Ekintza bat egiten da, sendagai bat ematen da edo subjektua nahita hiltzea eragiten duen interbentzio bat praktikatzen da, sufrimendua gutxituz eta minik gabeko heriotza emanez, horrela, atseden hartu ahal izateko.*
- *Beste mota batzuk: pasiboa edo negatiboa, omisioagatik (terapien abstentzioa edo erretiroa), zeharkakoa, borondatezkoa, nahigabekoa, eugenesikoa "arraza hobetzeko" helburuarekin, edo errukitsua.*

ALDEKO ETA KONTRAKO ARRAZOIAK. Eztabaida eta iritzi ezberdinak sortzen dituen praktika da.

- ***Defendatzaileek,*** *gaixotasuna terminala denean****,*** *argudiatzen dute* ***pazientearen erabakia dela bere bizitzarekin zer egin****. Sufrimenduari eta minari eusten jarraitzea, hobetzeko aukerarik ez badago, pazientearentzat eta bere familiarentzat okerragoa da, azkenean, bakean atseden hartzen uztea baino. Sendatuko ez dela dakigunean, moralgabeagoa izan daiteke sufritzen jarraitzen uztea, atseden hartzeko nahia lortzen laguntzea baino.*
- ***Aurkako*** *jarrera dutenek argudiatzen dute ekintza bera pertsona bat hiltzea edo hiltzen uztea dela. Asmoa pazientearen sufrimenduarekin amaitzea izan arren, balizko sendabide baten ideia sor daiteke. Etika eta moralaren aurka doan prozedura da. Medikuaren funtzio nagusia sendatzea da. Bere erantzukizuna onartzea zaila litzateke.*

NORK ESKA DEZAKE?

- *Adin nagusiko edozein pertsonak, judizialki gai dena, kontzientea eta kanpoko presiorik gabea.*
- *Ezintasuna duten pazienteetan, eskaera beste pertsona baimendu batek aurkeztu dezake, Bizi Testamentuko dokumentu batean agertzen bada eta bertan prestazio hori jasotzeko nahia jasotzen bada.*
- *Gaixotasun sendaezin bat pairatzen duenak, pairamen larri, kroniko eta ezingarri batekin, sufrimendu fisiko edo psikiko konstante eta jasanezina duena, mediku arduradunak ziurtatua.*
- *Informazioa izan behar du honakoei buruz: bere prozesu medikoa, jarduteko aukera eta alternatibak, zaintza aringarri integraletarako sarbidea eta, mendekotasuna artatzeko araudiaren arabera, eskubidea duen prestazioetarako sarbidea.*
- *Eutanasia eskaera bi egiten dira, idatziz, gutxienez, 15 eguneko tartearekin.*
- *Eskaera egin ondoren pazientearen eta mediku arduradunaren artean deliberazio prozesu bat irekiko da.*

Eutanasia egin aurretik, baldintza guztiak betetzen direla ziurtatu behar du eskaera jasotzen duen medikuak, beste mediku independente batek, Berme eta Ebaluazio Batzordeko bi kidek eta, hala badagokio, osoko bilkurak.



EUTANASIA MOTAK

***Eutanasia zuzen aktiboa edo positiboa, Espainian legezkoa den bakarra**, horrela deitzen zaio medikuak pazientearen heriotzan duen inplikazio aktiboa dela eta. Profesionalak ekintza bat egiten du, sendagai bat eman edo pertsona nahita hiltzea eragiten duen interbentzio bat egin. Helburua sufrimendua murriztea eta minik gabeko heriotza ematea da eta, horrela, atseden hartu ahal izatea.*

- ***Eutanasia zuzena:** ekintza bidez edo egiteari utzita pazientearen heriotza eragin nahi da. Bi kasuetan medikuaren erantzukizuna da. Aktiboan (Espainian legezkoa da) eta Pasiboa izan daiteke.*
  - *Eutanasia aktiboa (edo positiboa): ekintza bidez (substantzia hilgarria ematea, adibidez).*
  - *Eutanasia pasiboa (edo negatiboa): omisioagatik (abstentzioa edo terapien erretiroa).*

- ***Zeharkako eutanasia:** ez du paziente terminalaren heriotza eragin nahi, mina murriztu baizik. Praktika horiek tratamendu aringarrietan aplika daitezke, gaixotasuna sendaezina denean eta, sufrimendua murrizteko asmoz, funtzio analgesikoa duten sendagaiak ematen zaizkionean. Horren kontrako efektuak pertsonaren bizitza laburtzen du, eta espero baino lehenago hiltzea eragin.*

- ***Borondatezko eutanasia:** paziente terminalak hiltzeko borondatea adierazten du. Gaixoak eskatzen du eutanasia une horretan edo lehenago egina dauka (adibidez, idatzita utzi zuen eutanasia egitea nahi zuela unea iristean bera ez bazen gai nahi hori transmititzeko, bere gaitasun kognitiboak kaltetuta zeudelako).*

- ***Nahi gabeko eutanasia:** eutanasia egiteko nahia profesionalari jakinarazten dion gizabanakoa ez da pazientea bera, erabakia hartzen duen beste pertsona bat baizik. Normalean senide bat izaten da.*

- ***Eutanasia eugenesikoa:** banakoen heriotza proposatzen du "arraza hobetzeko", hau da, helburu ideologikoekin pazientearen sufrimendua amaitzeko asmorik gabe. Gizabanakoa jaio aurretik ere egin daiteke. Kasu horretan abortutzat hartzen da.*

- ***Eutanasia errukitsua:** helburua gaixo terminalak bakean atseden hartzea lortzea da.*